

ZERBITZU PUBLIKOAK - Haurreskolak**BIHARKO MAHAI NEGOZIATZAILEA:****DESPLAZAMENDUETARAKO DEIALDIA ETA LAB-EN EKARPENAK.**

Haurreskolak Partzuergoak Uztailaren 20ko mahai negoziatzailea bertan behera utzi ostean, **bihar hilak 23an**, soilik **datorren ikasturtearen aurreikuspenei** lotutako gaiaren inguruko **bilera** izatea lortu dugu. Sindikatueta ordezkariek Lakuara joan ginen arduradunei azalpenak eskatzera eta azken asteetan eskatzen ari ginen bilera hori izateko konpromisuaren bila.

Biharko bilerarako **Gerenteak bidalitako proposamenean** hau jasotzen da: **“Ikasturte berrirako esleipenak eta egutegi proposamena”**; gaur, 14:00ak baino lehen alde sozialaren ekarpenak egiteko epea zehaztuz.

Hasteko eta behin, **LAB sindikatuak azpimarratu nahi du** aipatutako prozesua ez dela “esleipenak” egiteko (plaza berriak eskainiko ez baitira) baizik eta, Haurreskolak Partzuergoak lanpostuen zerrenda berri gabe duenean, Haurreskolak Partzuergoko lan hitzarmenaren 13.artikuluaren oinarrituta burutu nahi dituen **balizko desplazamenduak esleitzeko prozesua**. Horrez gain, Partzuergoak egindako proposamenean prozesu hau abuztua amaieran burutzeko asmoa du.

Gauzak horrela, Haurreskolak Partzuergoko gerentea den Zorione Etxezarragaren aurreikuspen falta eta bidalitako azaldu gabeko dokumentazioa ikusirik, **LAB sindikatuak haurreskola bakoitzak dituen beharren eta tipologiaren araberako pertsonal hornidurarako irizpideen gaineko ekarpenak** egin ditu:

- **Ez dira deialdi honetatik at desplazamenduak egingo**, ez bada istripu edo haurreskola bat ixten dela.
- **Ez dira aparteko ordurik sartuko**, ez bada egunean bertan suertatutako premiazko egoera edo istripu bategatik.
- Deialdi honetatik balizko **desplazamenduetarako itzulera irizpideak negoziatu** behar dira.
- **Haurren egokitzapen prozesu egokia eta ikasturtea haurreskoletan zein hezitzaileentzat egonkorra izatea** izan behar da helburu.
- Familiei eskaini zaien langileen horniduraz gain Haurreskolak Partzuergoak agindutako **Kontingentzia plana aurrera eraman ahal izateko errefortzuak** ezarri behar dira eta honako irizpide hauek planteatzen ditugu:

- ➔ **Lehenengo hiruhilabetetarako jasotako matrikula guztiak kontuan hartu** behar dira. Irailean haurreskola zabaltzeko zein desplazamenduak proposatzeko.
- ➔ Zabalik dauden **gela bakoitzeko 2 hezitzaile** jardun osoan.
- ➔ **Epez kanpo aurkeztutako matrikulak berehala onartzea**, batez ere horrek haurreskola bat ixtea, zabaltzea edota desplazamendu gutxiago gauzatzea suposatzen duenean.
- ➔ Elkartze gelak: **ikasturtean zehar betetzen diren geletan ez dugu onartuko irailen elkartze gelak zabaltzea.** (ume eta familiak kontuan hartu)
- ➔ **Horniketa pertsonalaren kopuruari dagokionez**, hauek dira kontuan hartu beharreko **baldintzatzaileak**:
 - **Ordu beteko prestakuntza** izan behar dute hezitzaile guztiek(kasu batzuetan umeen ordutegitik kanpo egin behar dena, haurreskolaren irekiera edo itxierarekin lotuta daudenak), **koordinatzailearen dedikazioa**, **60 urtekoen murrizketa**, **ordezkatzan ez diren bestelako murrizketak** (<2:20, edoskitzea, ikasturteko 60 orduko baimena), ...
 - **Haurreskolako ordutegia**
 - **5 ordu baino gutxiago edo gehiago duten haurren kopurua**
 - **Haurreskolako tipologia**; eraikin desberdinak, solairu desberdinak, gela kopurua...
 - Arreta premia bereziak dituzten umeak

Lehen aipatu bezala, Haurreskolak **Partzuergoak egindako proposamenean mugimenduak esleitzeko prozesua abuztuaren amaieran** egiteko asmoa du.

LAB sindikatuak prozesua izatekotan, **uztailaren azken astean izateko proposamena** egingo du, horretarako egutegia moldatuz. Azken finean, **abuztua hezitzaileen oporretako hilabetea** izanda, ulertzen dugu langileek ez daukagula zergatik holako prozesu batean murgilduta ibili behar.

Gainera, ezin dugu ahaztu Haurreskolak Partzuergoak aldebakarrez erabaki zuela **aurtengo matrikulazioa hilabete bat aurreratzea**, hurrengo ikasturteari begirako **datuak ahalik eta lasterren izateko**. Beraz, ezin dugu onartu Partzuergoaren **Gerentearen aurreikuspen falta eta noraezarengatik**, oporretan horrela ibiltzea.

Beraz, hauek dira **LAB sindikatuak** Haurreskolak Partzuergoari bidalitako **proposamenak**, **langileon eskubideak** kontuan hartzen dituztenak eta **herri guztietako haurreskoletako antolaketa egokia** bermatuko dituztenak. Bihar, goizeko 8etan Lakuara joango gara horiek guztiak defenditzera. Eta **datoren ikasturteari begira ere**, **langileak egonkortzeko eta haurreskoletara etorkizuna bermatuko dituen neurriak defenditu eta lortzeko prestutasun osoaz jarraituko du LAB sindikatuak.**

Animo eta aurrera!